


Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K



Lezoko Unibertsitateko
Udala

ANNA "Spring is Here" cd berrria aurkezten

urriak 7 ostirala 21:00etan
GEZALA AUDIRORIUMEAN

Jazz



1999an sortutako taldea da. Annak taldea sortzerakoan musiko sortzaile eta originaletan zuen jarria pentsamendua. Etiketatzen zaila izan arren, jazzaren ikuspuntutik urrun ez zebiltzan musikarien bila aritu zen. Mediterraneoko joera garrantzitsuak dituen jazz eta brasildar jazz musika lantzen dute. Bere erreperatorioan jazzean edo brasilgo musikan jada klasiko diren abestiak dituzte: *Foo-lish Heart*, *Nature Boy*, *Joyce* edo *Joao Bosco*.

Ahotsa: Anna Luna
Pianoa: Jaime Vilaseca
Kontrabaxua: Curro Gálvez
Bateria eta perkusioa: Roberto Faenzi

Familia brasildarreko Kataluniako abeslari eta konpositorea da Anna. Jazz eta latin musika estiloetan Europako abeslari ezagun eta errespetatuenetakoa da. Bartzelonan egiten ditu emanaldiak eta horrekin batera Espainian eta Europako Jaialditan zehar birak maiz egiten ditu. Ondoko diskoak argitaratu ditu: *Alguien* (1997); *Jazidas Project* (2002); *Batida Diferente* (2003), *Spring is Here* (2005)

XABI SANSEBASTIAN

urriak 14 ostirala 21:00etan
GEZALA AUDIRORIUMEAN

Euskal Musika


Agian Lezon ezagunagoa, baina Xabi Sansebastianek Izotz taldearekin egindako ibilbide musikala ez zuen jende askok ezagutzen. Beraz, Izotz taldearen ahotsa eta gitarra izandakoak Alboka taldearekin lehendabizi *Bi beso lur* eta, gero *Loriusen* (hemen Martá Sebestyékin batera) egin zuen agerraldietan sorpresa atsegi-na izan zen.

Bestalde, Kepa Junkerak beste ardura handi bat ere eman zion: *Maren* (2001) diskoko abestiak zuzenean abestea, lan hau plazaratu eta gero egin zituen biretan.

Horrez gain, Xabik bertsoak musikatu eta kantatzen ditu Euskal Telebistako *Hitzetik Hortzera* saioan, baita ikus-entzunezko munduan beste lanak burutu ere. Esaterako, metraje laburreko filmetarako musika sortu eta grabatu.

Azkenik, bakarkako egitasmo berri bati ekiteko prest dago konpainia onean bada ere. *Orai* diskoan, harridura sortuko duen euskal herri-musikaren ikuspegi sutso eta garaikidea azaltzen digu.

Xabik zuzeneko ondo ezagutzen du, ezagutzen dutenak, hazi egiten dela diote; herriko plazetatik pasa denaren eskarmentua nabaria du behintzat. Xabi San-Sebastianen garaia heldu da. *Orai*.



ALASDAIR FRASER & NATALIE HAAS

urriak 20 osteguna 21:00etan
GEZALA AUDIRORIUMEAN

Musika Zeltiarra

Clackmannan-en (Eskozia) jaioa da Alasdair Fraser eta biolina 8 urterekin jotzen hasia, musikariz osatutako familiak bultzaturik. National Mod biolin lehiaketa irabazi zuen 1973an. Edimburgoko unibertsitatean fisikan lizentziatu zen eta 1985 arte petrofisiko bezala aritu zen lanean. Urte horretan musikan soilik aritzea erabaki zuen.

Nazioarte mailan errespetatua, eskoziako biolin tradizio aberatsaren musikari eta irakasletzat hartu dute askok. Bakarlarri moduan edo talderen batean (Jean Redpath abeslariarekin, Tony McManus gitarristarekin, Master Chorale, Waterboys edo Chieftains) bere gaitasuna agerian utzi du gai hauetaz asko ulertzen ez dutenentzako ere.



Zortz disko grabatu ditu Alasdair Fraser bezala eta zuzeneko bideo bat berea den Culburnie Records diskatxearekin. Zeltiar musikaz osatutako hainbat bildumatan ere bere laguntza

eskaini du: *Celtic twilight*, *Celticlullabies*, *Narada Wilderness collection*, *Celtic Odissey* y *The Road North*.

1996ean argitaratutako *Dawn Dance* diska urteko zeltiar disko independentearen saria jaso zuen. Pelikuletarako ere musika egin du: *Titanic*, *El último mohicano*, *Wyatt Earp* y *The Spitfire Grill*.

Skyedance seikotearekin (Eric Rigler, Chris Norman, Peter Maund, Michael McLinden) etapa garrantzitsua pasa ondoren, betiko bere lankide izandako, eta konpositore eta pianista den, Paul Machlisekin proiektu berri batean dabil. Bere ikuskizun berrian gauza erabat berriarekin dator Fraser: Natalie Haas biolontxelo-jolearekin osatutako duo fin eta dotorea. *Fire and Grace* izeneko diskoa argitaratu berri dute.

Lezoko zine agenda

URRIA OCTUBRE

2005



800
zine ma



Lezoko Unibertsitateko
Udala

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Igandea **1,00 €**


OSTEGUNA • jueves



EL HOMBRE QUE MATÓ A LIBERTY VALANCE

Woody Allenek zioen moduan 'istoriorik ez baduzu ez duzu ezer!' Pelikula honetan zerbait sendoa bada hori da, istorioa. Baina gainera antzezle-multzotxo parekaezinarekin topo egingo duzu: John Wayne, James Stewart eta Lee Marvin gaizto zoragarria! Western klasikoen top 10ean oso aurrean legokeen pelikula zuzendari berdinarekin "The Stagecoach"ekin (joan den maiatzean ikusi ahal izan genuen Lezon) batera. Aipatu hiru pertsonaien artean triangelu bat sortuko da, Wayne eta Stewartek maite duten emakume beraren inguruan sortuko den moduan. Harrigarria!!!!

1962, EEBB 🕒 123 min. 🏠 John Ford.
🎭 John Wayne, James Stewart, Vera Miles, Lee Marvin.



LA BALADA DEL NARAYAMA

Japoniako herri txiki eta urrun batean noiz eta nola inork gogoratzen ez badu ere, badute ohitura berezi bat: 70 urte betetzean herri horretako pertsonak Narayama mendira igo beharko dute heriotzari itxarotera. Orin andreak 69 ditu, eta mendira abiatu beharreko eguna iristen ari da. Hori baino kezka handiagoa du ordea emakumeak: bere semeak oraindik ez du andregairik. Ez du beraz, denbora gehiegirik izango heriotzaren bila joan aurretik!

Cannesen 1983an urrezko palmondoa irabazi zuen.

1983, Japonia 🕒 130 min. 🏠 Shōei Imamura.
🎭 Ken Ogata, Sumiko Sakamoto, Takejo AkiTōnpei Hidari.

ZINERIK EZ

ALASDAIR FRASER & NATALIE HAAS KONTZERTUAN




TRON

Gaur egun ordenagailuz sortutako efektuak ia pelikula guztiek erabiltzen dituzte. 1982an ordenagailu bidezko efektuak egiteko zailtasunik nagusiena ordenagailuak edukitzea zen. Zer esan efektu bereziak egiteko programei buruz. Garai hartako efektu bereziei buruzko lan antropologikoa egin nahi baduzu edo, besterik gabe, kuriositatea sentitzen baduzu, pelikula hau ikusi beharrean zaude. Oscarretarako bi izendapen jaso zituen, nahiz eta ondoren ez zuten saritu. Halere, zinemaren historian lekutxoa lortu duen pelikula da aipatu saiakera teknikoengatik.

1982, EEBB, Taiwan 🕒 96 min. 🏠 Steven Lisberger
🎭 Jeff Bridges, Bruce Boxleitner, David Warner, Cindy Morgan.


LARUNBATA • sábado



NOS MIRAN

Zinema 800 egitasmoak beti ongi hartu izan ditu opera primak. Hori bi arrazoigatik da: bat, zuzendarien lehenengo pelikulak, oro har, oso ongi prestatutako proiektuak izan ohi direlako. Bi, zuzendari baten ibilbide artistikoa zerotik jarraitzen hasi gaitzkeenez mugarri direlako. Kasu honetan Norberto Lópezen lehen pelikula da *Nos Miran* hau. Genero poli-ziako eta beldurrezkoaren arteko nahasketa interesgarri honetan eta aktore-multzotxo luxuzkoarekin emaitza polita lortzen du.

2002, Espainia, Italia 🕒 104 min. 🏠 Norberto López
🎭 Carmelo Gómez, Iciar Bollain, Massimo Ghini, Manuel Lozano.




LA PIANISTA

Literatura Sailean, Nobel saria dutenen artean Elfriede Jelinek izango da guztien artean berezietarikoa ziurrenik. Egile honi buruzko erreferentziarik duenak edo bere idazlanen batetara hurbiltzeko aukera izan duenak jakingo du zertaz ari garen. Pelikula hau bere nobela batean oinarritua dago eta kritikek diotenez nahiko fidelki gainera. Eszenaren batek eraginda bat baino gehiago da zinetik atera dena.

Sari ugari eta garrantzitsuz 'babestutako' pelikula (Cannes, Cesar, Europa, BAFTA, ...) da *El pianista*. Askok ikusi duten zine zaleak ere harrituko dituen seguruena aurretik ez badute pelikularen erreferentziarik.


2001, Austria, Frantzia 🕒 130 min.. 🏠 Michael Haneke
🎭 Isabelle Huppert, Annie Girardot, Benoit Magimel, Susanne Lothar.



HAIZEAREN NOMADAK

Hegaztien emigrazioaren inguruan egindako dokumental entzutetsua izatera iritsi da eskuartean dugun hau. Ekipo frantziar batek pazientzia handiz, 4 urtez, lau kontinentetan zehar 75 bidai egin behar izan ditu ordu eta erdiko filme koloretsu eta itxaropenez beterikoa egiteko. Edukia eta ikusgarritasuna modu paregabearen elkarloturik daude! Pelikula oso saritua hainbat zinemalditan, Oscarretan izendatua izatera iritsi zen 2003ko edizioan.


2001, Frantzia 🕒 90 min. 🏠 Jacques Perrin, Michel Debats & Jacques Cluzaud.
🎭 Dokumentala



STAR WARS IV. UNA NUEVA ESPERANZA

Filme honi buruz berria izan daiteken ezer gutxi esan daiteke. Gazte (eta ez hain gazte) belaunaldi ezberdinak pelikula honen eraginpean haziak gara. Jada klasikoa den hau, zientzia-fikziozko baino abenturazko pelikula bat dela esan daiteke. Luke Skywalker, Han Solo, Leia printzesa, R2-D2, C-3PO... ahaztezinak! Ondoren, lehenengoa zen hau, laugarren kapitulu bilakatu zuten eta 6 filmez osatutako seriea osatu zuten. Serie guztiaren xarma pikutara bidali zuten arren, honako honek 6 Oscar irabazi zituela gogoratu!

1977, EEBB. 🕒 121 min. 🏠 George Lucas
🎭 Mark Hamill, Harrison Ford, Carrie Fisher, Peter Cushing.



LUCKY LUKE (Daltontarren lorratzean / Dalton City)

Bi historia ezberdin kontatzen dira filme honetan. Lehenengoan, Daltontarren kartzelatik alde egin dute. Kartzelazainaren zeregina izango da berriro 4 anaiak preso ekartzea, baina lan zaila berarentzat bakarrik. Lucky Luke-ri laguntza eskatuko diote herritarrek. Bigarren historian, akats baten ondorioz, Joe Dalton aske utziko dute eta anaiak askatu ondoren herriaren jabe egingo dira. Lan gogorra asteburu honetan Lucky Luke-arentzat!

1996 60 min. Hainbat
Marrakzi bizidunak.




HIRUKIAK (7 samuraiak & Katu botaduna)

Sorgin aspertuak zazpi samuraien istoriora bidali ditu hirukiak. Ez pentsa han beldurtu egin direnik. Are gehiago, gaizkile batzuk enperadorearen aurka aritzeko asmoa dutela jakin dutenean hari laguntzeko ahaleginak egin dituzte, hori bai zazpi samuraien laguntzarekin.

Bigarren ipuinean hirukiek botadun katu bati lagunduko diote. Honek bere nagusia den errotariari aitarengandik jaso duen ondarerik onena katua bera dela jakinarazi nahiko dio eta horretarako ondoan izango ditu hirukiak laguntzeko.


2003, Catalunya 67 min. Hainbat
Marrakzi bizidunak.



PARRANDAN

Takolo, Pirritx eta Porrotxek parrandarako gogoaz bazutela bagenekien, baina gai horrekin ikuskizun berri hau egiteko gai izango zirenik ez zitzaizun burutik pasa ere egin. Oraingoan abenturak parrandan izango dituzte, herriko festetan. Dantzan eta saltoka, txarangaren atzetik ibiliko dira guretzako hain parregarriak diren bihurrikerietan.

2001, EH 75 min. Takolo, Pirritx eta Porrotx.



HARTZ TXIKI

Hartz txiki baten eta bere lagunaren historia kontatzen dizkigute marrakzi bizidun hauek. Hartz txiki eta bere lagunak 'Cub' izeneko laguntxoari laguntzea erabakitzen dute. 'Cub'ek bere ama aurkitu behar du eta ez daki nola. Hartz txiki eta bere lagunak elkarrekin bat eginda, abentura ezberdinak biziko dituzte laguntxo berriari laguntzeko.

2001, Kanada 75 min. Raymond Jafelice.
Marrakzi bizidunak.

URRIA - octubre

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 6	22:00	EL HOMBRE QUE MATÓ A LIBERTY VALANCE
LARUNBATA 8	22:00	NOS MIRAN
IGANDEA 9	16:30	LUCKY LUKE (DALTONARREN LORRATZEAN / DALTON CITY)
OSTEGUNA 13	22:00	LA BALADA DEL NARAYAMA
LARUNBATA 15	22:00	LA PIANISTA
IGANDEA 16	16:30	HIRUKIAK (7 SAMURIAK & KATU BOTADUNA)
OSTEGUNA 20	21:00	EZ DA ZINE EMANALDIRIK IZANGO KONTZERTUA
LARUNBATA 22	22:00	HAIZEAREN NOMADAK
IGANDEA 23	16:30	PARRANDAN
OSTEGUNA 27	22:00	TRON
LARUNBATA 29	22:00	STAR WARS IV. UNA NUEVA ESPERANZA
IGANDEA 30	16:30	HARTZ TXIKI

Gezala AUDITORIUMA

ERAKUSKETA

ANTTONI UNZAIN

urriak 1 - 31


KULTUR ARETOAN (DONIBANE KALEA)

LEZO ZENA ETA EZ DENA MARRAZKIEN ERAKUSKETA

Urrian erakusketa berri bat ikusteko parada izango dute lezoarrek edota kanpotik etortzen den edonork: Anttoni Unzainen marrazkiak. Eredurik gabe, buruan duen imajina oinarritzat hartuta erditu ditu Anttonik marrazki guzti hauek:

“Nire haurtzaro eta gaztaroko oroimen asko etortzen zaizkit burura maiz eta marrazki bilakatzen ditut oroitzapen guzti horiek. Lezo aski aldatu da azken urte hauetan eta aukera paregabea izan dut aldaketa guzti hauek marrazki bidez isladatzeko. Atzo Lezo bat ezagutu genuen eta gaur, jadanik, erabat aldatuta dagoen Lezo herrian bizi gara. Erakusketa honetan Lezo zena eta gaur egun, jada, ez dena ikusteko parada izango dugu”.

Hilabete osoan beraz, egungo Lezo eta iraganean izandakoa Anttonik gogoratzen duena konparatzeko aukera izango du erakusketara hurbiltzen den orok.



ANTTONI UNZAIN